

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK



IZENBURUA:

Aldatu al daiteke euskararen legea?
Aldatzea beharrezkoa al da?

EGILEA:

Iñigo Lamarca

DATA:

2015/04/29



Aurkibidea

1. Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 legea	3
2. Euskararen oinarriko legearen balioak	3
3. Aldaketarik behar al da?	4
4. Euskararen erabilera zabaltzea eta indartzea: hori da erronka nagusia	5
5. Laburbilduz.....	6



1. Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 legea

Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 legea aurrerapauso izugarria izan zen. Gogora dezagun zein zen euskararen egoera Euskal Herrian 1960. hamarkadan. Segur aski, urte haietan sortu zen mugimendu euskaltzalea existitu izan ez balitz, euskara hil zorian egongo zen egunotan.

Zorionez, euskal gizarteak bere nortasunaren ezaugarri inportanteena denari, euskarari alegia, eutsi nahi izan zion eta oso txarra eta erasokorra zen testuinguruan (diktadura frankista, egun Euskadi Komunitate Autonomoa eta Nafarroa Foru Komunitatea diren eremu politiko-instituzionaletan) izugarritzko bultzada eman zion euskarari. Euskal literaturari idazle berri bezain bikainek ekarpen aberatsak eta indarberritzaileak egin zizkieten. Ikastolak sortu ziren. Euskal kantagintza berriak sekulako arrakasta izan zuen. Euskara batzea lortu genuen, euskara idatzi komuna sortuz.

Euskadi Komunitate Autonomoa eratu zenean 1979.eko abenduko Autonomi Estatutuaren eskutik mugimendu euskaltzaleak indar handia zuen, zorionez. Horri esker, neurri handi batean, euskara bi eratara -biak uztartuak- agertzen da aipatu Autonomi Estatutuan: Euskal Herriaren berezko hizkuntza gisa, eta hizkuntza ofiziala dela aintzatetsiz.

Kontuan izan behar dugu, Auzitegi Konstituzionalaren doktrinaren arabera, Autonomi Estatutuek Konstituzionalitate Blokea osatzen dutela Konstituzioarekin batera. Horrek esan nahi du, besteak beste, euskara Euskadi Komunitate Autonomoko hizkuntza berezkoa eta ofiziala izanik, Estatuko Administrazioak zenbait obligazio dituela: zehazki, Administrazio periferikoa deitzen denak (Gobernu zentralaren ministerioen delegazioek) zerbitzuak euskaraz ere eskaini beharko lituzkeela; Seguritate Sozialak euskal hiztunen eskubideak behar bezala errespetatu eta babestu beharko lituzkeela; euskara kultur ondare gisa errekonozitu eta babestu beharko lukeela, etab. Are gehiago, nire ustez Espainiako Estatu buruak euskaraz jakin beharko luke. Zeregin horretarako txikitatik prestatu dutelarik, denbora eta aukera izan ditu bere heziketan zehar euskara ikasteko. Baina, tira, konformatuko nintzateke Gobernu zentralak hizkuntza politikaren gaineko gure autogobernua errespetatuko balu.

Autonomi Estatutuaren ondorio gisa, 1982.eko azaroan euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko legea onartu zen. Eusko Legebiltzarrak honako konposizio hau zuen bere lehenengo legealdian: EAJ-PNVk 25, HBk 11, PSE-PSOEk 9, UCDe 6, EEk 6, APk 2 eta EPK-PCEk 1 (60 guztira). HBk ez zuen Legebiltzarraren jardueran parte hartzen, eta AP (Alianza Popular, gero PP bilakatu zena) noraezean zebilen, Autonomi Estatutuaren aurka bozkatu zuelako (lehenago, bere buruzagi gehienek ez zioten Konstituzioari baiezkkoa eman). Ondorioz, euskararen legearen inguruko adostasuna edo kontsentsua EAJ-PNV, PSE-PSOE, UCD eta EEren artean gauzatu zen (EPK-PCEk ere bat egin zuen).

2. Euskararen oinarrizko legearen balioak

Balio handikoa izan zen adostasun hori. Legea onartzeko prozesuan izan zen eztabaida jasotzen duen bilkura egunkaria irakurtzen badugu, konturatu gaitzeko zeinen konplexua eta zaila baina aldi berean inportantea izan zen ikuspuntu eta planteamendu desberdinak zituzten alderdi politiko horien arteko akordioa. Carlos Garaikoetxea lehendakari zelarrik, eta Pedro Miguel Etxenike Kultura eta Hezkuntza sailburu, euskarak aurrerapauso izugarria eman zuen.



Euskadi Komunitate Autonomoak baditu oso oinarrikoak diren legeak bere ordenamendu juridikoan. Horietako bat, zalantzarik gabe, euskararen erabilera normalizatzeko legea da. Lege horren edukia oso garrantzitsua da, euskarari buruzko legeriaren marko edo esparrua ezartzen duelako.

Baina, horrez gain, lege horrek badu balio politiko eta sinboliko handia: lortu zuen adostasuna. Nabarmena da, egun Sortu alderdiak ordezkatzeko duen gizarte sektorea ez zela adostasun horretan egon, baina edozein modutara ez zuen aurka bozkatu. AP ez zen, ezta ere, adostasun horretan egon, baina kontsideratzen badugu egungo PP garai hartako UCDtik gertuago dagoela bere iturburua izan zen APTik baino, esan dezakegu 1982ko kontsentsuak baduela oraindik bijentzia edo jadanekotasun handia. Nolanahi ere, honako galdera hau egin beharko genuke: legea oraingo testuinguru politikoan eztabaidatuko balitz Legebiltzarrean, adostasun maila handiagoa lortuko luke? Edukinari dagokionez, hobetzea lortuko genuke? Nire iritziz, galdera bi horien erantzuna ezezkoa da.

Euskararen 10/1982 legeak, adierazi dugun bezala, euskarari buruzko legeriaren zutabeak ezarri zituen. Sei arlo nabarmendu daitezke: 1- Hizkuntza eskubideak onartu zituen; 2- Elebitasuna ezarri zuen Administrazioan; 3- Euskarazko irakaskuntza finkatu zuen; 4- Hedabideetan ateak zabandu zizkion euskarari; 5- Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea indartu zuen; 6- Gizartearen euskararen erabilera sustatzeko oinarriak jarri zituen.

Oinarriko lege horren ondoren lege sektorial asko onartu ziren, hezkuntzaren eta administrazioaren arloetan gehien bat. ETB1, Euskadi Irratia eta Gaztea hedabide publikoak sortu ziren. Foru arauak ere onartu dituzte urteotan Batzar Nagusiek euskarari buruzkoak. Udal ordenantza ugari ere onartu dira. Esan daiteke, horrenbestez, badagoela euskarari buruzko azpi-ordenamendu juridiko bat, eta horren zutabe nagusia 10/1982 legea da.

3. Aldaketarik behar al da?

Nik ez nuke lege hori aldatuko. Uste dut bere balio politikoari eta bere edukari dagokienez, aldaketa prozesu batek ez lituzkeela emaitza hobekien lortuko. Edozein modutara, aipatu dudako euskarari buruzko azpi-ordenamendu juridikoak aldaketarik eta hobekuntzarik izan du, eta hori litzateke, nire aburuz, euskararen egoera, babes eta sustapena, bai eta euskal hiztunen eskubideak ere, egokiro eta gero eta hobekiago bermatzeko bidea.

Euskararen legea bete al da behar bezala Euskadi Komunitate Autonomoan? Legearen xedapenak orokorrak dira, hots haien izaera eta idazkera bera ere ez dira oso zehatzak, hain zuzen ere oinarriko lege bat, lege marko bat delako. Dena dela, legearen arau nagusiari bagagozkio, zeina Autonomi Estatututik eratorritzen baita, euskara hizkuntza berezkoa eta ofiziala dela aldarrikatzen duenari, esan dezakegu hori ez dela oraindik behar bezala bermatzen.

Euskararen egoera soziolinguistikoa ahula eta diglosikoa da oraindik, nahiz eta aurrerapen izugarriak egin diren, euskararen irakaskuntzari esker, gehien bat. Gero helduko natzaio gaiari. Administrazio publikoetan, euskal hiztunek ez dituzte bermaturik oraindik erabat euren hizkuntz eskubideak.

Arartekoak, bere urteko txostenetan, behin eta berriro salatu ditu belzguna hauek: Ertzaintza (kasu askotan udaltzaingoak ere), Osakidetza, Justizia Administrazioa eta Estatuaren Administrazioa (periferikoa eta Seguritate Soziala). Administrazio esparru horietan, euskararen ofizialtasunak ez du behar bezalako bermerik, hau da euskara ezin da nahi beste erabili.

Hala eta guztiz ere, azpimarra ditzagun alderdi onak, egon bai baitaude, eta ugariak gainera. Duela 50 urte hil zorian zegoen euskarak izugarriko aurrerakada egin du. Euskararen ezagutza maila, hau da euskaraz dakiten herritarren kopurua, asko hazi da. Irakaskuntzan D ereduak izugarri egin du aurrera; nik uste dut hamar urteren buruan haur ia guztiak D ereduaren arituko direla. Unibertsitate ikasketak gehienak euskaraz egin daitezke. Hamaika doktore tesi egin



eta irakurri dira euskaraz. Euskararengandik horren urruti zegoen Justizia Administrazioan “Auzia Euskaraz” programa jarri da abian. UEMA euskaraz bizi nahi duten udalen elkarte gero eta sendoagoa da. Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan (batez ere Gipuzkoakoetan) euskara gero eta gehiago erabiltzen da. Jaurlaritzaren eta Foru Diputatuen kontseiluen bileretan ere euskarak gero eta presentzia handiagoa du.

4. Euskararen erabilera zabaltzea eta indartzea: hori da erronka nagusia

Baina, aurrerapen nabarmen horiek egin diren arren, badugu arazo larri bat: euskararen erabilera oso gutxika ari da hazten. Paradoxa handi bat ari da gertatzen: gero eta pertsona gehiagok dakite euskaraz, horien portzentaiak asko egin du gora azken urteotan. Baina erabilera ez da proportzio berean igo.

Euskara ez da, tamalez, komunikazio edo lan hizkuntza euskaldun gehienentzat. Ikastola askotan gaztelania asko entzuten da atsedendietan. Gazteen artean gaztelania da nagusi. Bilbon edo Gasteizen, esaterako, ez da kalean apenas euskara entzuten. Euskarazko hedabideek (ETB 1ak, nabarmenki) entzuleria edo irakurle kopuru eskasa dute. Lege eta foru arau proiektuak gaztelaniaz egiten dira eta euskara hizkuntza guztiz menpeko bilakatzen da haien onartze prozesuetan. Gaztelaniaz sortzen da lege produkzio guztia (udal ordenantza batzuk izan ezik), eta gaztelania da operadore juridiko ia guztiek erabiltzen duten lan hizkuntza bakarra. Beste horrenbeste esan daiteke medikuek, ingeniariak edo psikologoek erabiltzen duten lan edo harreman hizkuntzaz. Horietako askok ingelesa euskara baino gehiago erabiliko dute, seguruenik.

Erabilerarena da, nire ustez, euskarak duen erronkarik handiena. Egun, zenbait herrialde elebidunen egoera kontuan hartzen badugu, gaelikoak Irlandan duen egoeratik gertuago geundeke, katalanak Katalunian edo frantsesak Quebecen dutenetik baino.

Erabilera sustatzeko legeak ez dira tresna egokiak, nire ustez. Izaera juridikoa duten beste tresna batzuk, planak esaterako, eraginkorragoak izan daitezke, baina ez dira nahikoak.

Duela gutxi, Mikel Mendizabal irakasle eta ikertzaileak eztabaida interesgarri bat sortu du “Hizkuntzen berdintasun komunikatiboa: mitoa ala errealitatea” liburuarekin, zeinean Miren Azkarate, Bernard H. Bichakjian, Juan Carlos Moreno Cabrera eta Jesus Rubio hizkuntzalariek bere ikuspuntuak azaltzen dituzten, Mendizabalek igorritako galdetegi baten arabera. Euskarak zailtasun bereziak al ditu komunikazio hizkuntza praktikoa eta erakargarria izateko? Nik esango nuke ezetz, baina liburu horren irakurketak gogora ekarri dizkit Fernando Mendizabal hizkuntzalari handiak (ondo merezitako errekonozimendua izan ez zuenak) Zuzenbide Fakultatean euskara juridikoa lantzen hasi ginenean 1986an ematen zizkigun aholkuak eta gomendioak. Euskarak aberastasun eta malgutasun izugarriak dauzka -zioskun Fernandok- eta haiei probetxu ahalik eta handiena atera beharko genieke euskara hizkuntza guztiz praktikoa eta komunikatiboa izan dadin. Euskarak aukera ezin hobea zuen hizkuntza juridiko propioa eta funtzionala sortzeko, gaztelaniak dituen barrokismoa eta sasi-teknizismoak saihestuz. Dena dela, horretarako garaiz gaude oraindik, zeren eta mundu juridikoan, lehen esan dudan bezala, oso gutxi baita euskaraz sortzen dena.

Gaztelaniak Euskadi eta Nafarroa Komunitate Autonomoetan eta frantsesak Ipar Euskal Herrian indar soziolinguistiko izugarria dute. Horrenbestez, euskarak zailtasun izugarriak ditu komunikazio hizkuntza baliagarria eta erabilia izateko. Ez dakit zein datekeen erabilera hori hobetzeko modua. Jakin badakit horri buruz hausnarketa eta azterketa sakonak egin direla. Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak horretan dihardu; Euskararen Kontseiluak ere bai; euskarari buruzko kompetentzia edo eskuduntza duten beste hainbat arduradun politiko ere horretan dabilta...Uste dut, nolana ere, hausnarketa edo eztabaida gune zabala egokitu beharko litzatekeela, non hizkuntzalariek, irakasleek, komunikazioan adituak direnek e.a. parte hartu beharko luketen euren ikuspuntuak eta esperientzia desberdinak elkartuz, kontrajarriz eta kontrastatuz.



5. Laburbilduz

Nire iritzien arabera, euskararen erabilera normalizatzeko legeak ez du aldatzeko premiarik. Oinarrizko legea delarik, euskarari buruzko marko edo esparrua ezartzen du, lege askoren iturburua da, eta alderdi politiko desberdinen arteko adostasuna da bere balio politiko nagusia. Lege haren garapenean sortu diren lege eta arau zehatzak balioztatu eta eguneratu egin beharko lirateke noizean behin.

Nolanahi ere, nabarmena da lege horren (eta Autonomi Estatutuaren) helburuak ez direla asebetete. Euskara ez da Euskadi Komunitate Autonomoko hizkuntza ofiziala behar bezala, euskal hiztunen eskubideen erabilerak eta babesak gabeziak eta hutsuneak dituztelako.

Dena dela, euskarak duen erronkarik inportanteena erabilera handitzea eta zabaltzea da. 10/1982 oinarrizko legea onartu zenetik erabilera gehitu da, baina azken urteotan badirudi erabilera ez doala gora. Euskarak egoera soziolinguistiko diglosikoa jasaten du oraindik. Administrazio publikoek tresna egokiak sortu dituzte, baina euskara ez da ez lan ez harreman hizkuntza euskaldun gehienentzat. Horren kausa ez da, nire ustez, Euskadi Komunitate Autonomoko populazioaren portzentaia handi batek oraindik euskaraz ez dakiela bakarrik. Arazoa azpimarratu baino ez dut egingo, ez baitaukat argi nola gehitu litekeen erabilera. Diagnosiak eginda daude, zenbait proposamen eta plan ere mahai-gaineratu dira. Baina une garrantzitsu eta kritikoa batean gaudelakoan nago, eta horren aurrean diziplina desberdineko adituek bere ezaupideak eta ideiak alderatu beharko lituzkete, metodologia interaktibo eta parte-hartzailea erabiliz.

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK

